

ERAKUNDE ASEGURATZAILEAK EMAN BEHARREKO AURRETIAZKO INFORMAZIO OROKORRA

3/2020 Errege Lege Dekretuak, otsailaren 4koak, premiazko neurriei buruzkoak, Bigarren Liburuko I. Tituluko III. Kapituluko 6. atalean xedatutakoa betez, beherago adierazitakoa jakinarazten dio erakunde aseguratzaileak bezeroari. Lege horren bidez Europar Batasuneko zenbait zuzentarau sartu dira Espainiako ordenamendu juridikoan, sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren arloan; aseguru pribatuen arloan; pentsio plan eta funtsen arloan; tributuen eta zerga auzien arloan.

Erakunde aseguratzailearen identifikazio datuak eta helbidea

ASISA VIDA SEGUROS, S.A.U. (aurrerantzean, "ASISA VIDA"), helbidea Juan Ignacio Luca de Tena, 12, 28027, Madril, Espainia helbidean duena eta A-87425070 IFK zenbakiduna.

Uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 40. artikuluan eta hura garatzen duen araudian araututako Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko (DGSFP gaztelaniako akronimoaren arabera) administrazio erregistroan erregistratuta dago C0801 gakoarekin. Erregistro hori egiaztatu daiteke DGSFPak bere egoitzan, Avenida del General Perón, 38, 28020 Madril helbidean (aldi baterako egoitza), edo bere egoitza elektronikoa eskuragarri dituen bitartekoak baliatuta.

Banaketa jarduerari eta eskaintako aseguru kontratuari buruzko informazioa

ASISA VIDA-k ez du aholkularitarik eskaintzen banatutako aseguru produktuen inguruan.

Aseguru kontratuaren truke jasotako ordainaren izaera

ASISA VIDA enpresako langileek, banatzen dituzten aseguru kontratuen esparruan, pizgarri ekonomiko aldakor baten truke lan egiten dute.

Bezeroari eta bestelako interesdunei ASISA VIDA-ri eta gatazkak ebazteko prozedura judicial eta estrajudizialei buruzko kexak aurkezteko aukera ematen dieten prozedurak.

Bezeroaren eta/edo, kasuaren arabera, beste interesdun batzuen eta ASISA VIDA-ren artean ager litezkeen gatazkak erreklamazio bidez salatu ahalko dira jarraian adierazitako instantzien aurrean, ondoz ondoko moduan, hemen adierazitako lehentasun ordena errespetatuta:

1. ASISA-ren Ordezkaritza Probintziala.
2. ASISA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzua - Calle Juan Ignacio Luca de Tena, 12, 28027, Madril - sac@asisa.es
3. DGSFParen Erreklamazio Zerbitzua. Izapide hau abian jarri ahal izateko, beharrezkoa izango da alde aurretik erreklamazioa aurkeztu izana ASISA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzuaren aurrean, goian ageri den 2. atalean adierazitako bitartekoetako edozein baliatuta, eta zerbitzu horrek bezeroaren eta/edo interesdunaren interesen aurkako ebazpena eman izana, edo inolako ebazpenik eman ez izana bi hilabetetan zehar, bezeroak eta/edo interesdunak kexa edo erreklamazioa aurkeztu zuen datatik zenbatzen hasita.
4. Epaille eta auzitegi eskudunen aurrean.